

Urtezahar eguneko manifestazioan parte hartzeko deia egin dute

Aiztondoko sei udalek deitu dute 'Giza eskubideak, bakea eta irtenbidea' lelopean; Villabonan hasi eta Zizurkilen amaituko da // **2**

Beltzaren plaza inguratzen duen espaloian hasi dituzte berritze lanak

San Bartolome kaleko 20 eta 27 arteko espaloia ere berrituko da; martxorako aurreikusten du bukatzea Amezketako Udalak // **6**

«Ondo nago. Alferrik da gauza hauei bueltak ematea»

IÑAKI ARTOLA
PILOTARIA

Lesioa tarteko alegiarra txapelketatik kanpo dago; otsailean kantxetara itzultzea espero du // **7**



SANCHEZ-BERNABE

KULTURA UKABILA BELDURRARI

Monica Bernabe eta Gervasio Sanchezek Afganistango emakumeek jasaten duten zapalkuntza azaleratu nahi izan dute 2009tik 2014ra ateratako argazkiekin; Tolosako Aranburu jauregian dago erakusketa // **4-5**

ataria 2017
bertso jaialdia

Urtarrilak 21,
larunbata
18:00 etan
Tolosako
Leidor antzokian

Sarrerak atarikideentzat 8€
atarikide:

Egin zure erreserba urtarrilaren 5era bitarte.
Gehienez 2 sarrera bakoitzak.
Deitu edo idatzi: 943 65 56 95 • atarikide@ataria.eus

SAMANIEGO-ORRIE K.E.
XIX. elkartasun krosa
san silvestre

abenduak 31
arratsaldeko 15:30ean
ZENKAUSIAN

distantziak

15:30 Txikien Korrika Festa (2 mailaraino)	700 m
benjaminak	1400 m
alebarrak	1400 m
infantilak	1400 m
16:45 helduak	5050 m

sariak
kategoria bakoitzaren amarien sari banaketa egingo da kamisetak (iritsien diren arte) eta garaiakurrak.

17:45 helduak eta berritzaileak: Kamisetak, opariak eta garaiakurrak.
Horrez gain parte hartu, duten gutien artean hainbat opari zozketatuko dira: aldiria, kirol medikuntza azterketak, kiroldegirako bonoak, gozo kitak...

izen-ematea
Helduak abenduaren 14tik 30era, SHANTI KIROLAK denda edota egun berean ZERKAUSIAN. Beste kategoria bakoitzeko sarrerak hainbat opari egunean bertan ZERKAUSIAN.
Helduak aurrez 8 euro, egunean 12 euro, Haurrak DOHANIK.
Oharra: antolatzaileak gerta daitezkeen istripuen ardura ez du bere gain hartuko.

Ekartasun kros honetan jasotzen den dirua, Guadalupe Iturraren inguruan (Kobarnitz) bizi den komunitateko 600-700 m-ko proiektuaren jarraipena egiteko erabiliko da.

Sanamakeren SHANTI KIROLAK (1994ko abuztuaren 14tik aurrera)
motortxo, originalari sari berezia!!

Zubimusuk Urrezko Bikain ziurtagiria

Eusko Jaurlaritzak banatzen duen euskararen kalitate ziurtagiriak erakunde baten euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa neurtzen ditu

Erredakzioa Amasa-Villabona

Eusko Jaurlaritzak Zubimusu ikastola saritu du *Bikain, Euskararen Kalitate Ziurtagiria* saria-ekin. Urrezko ziurtagiria jaso du erakundearen komunikazioan eta irudi korporatiboan, kanpo zein barne harremanetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa goi mailakoa izateagatik. Ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da Bikain.

18 ARLO NEURTZEN DIRA

Bikain ziurtagiria lortzeko 18 arlotan euskararen erabilera nola den neurtzen du Eusko Jaurlaritzak: harreran, bezeroekin eta hornitzaileekin izandako harremanetan, eskaintzen duten zerbitzuan, administrazioan, enpresaren edo erakundearen estrategian eta kudeaketan eta giza baliabideetan adibidez.

Ebaluazio taldeak arlo horietan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa neurtzen ditu, enpresa eta erakunde bakoitzaren puntu gorenak eta ahulak identifikatu, aurrera egiteko praktika egokiak aholkatuz. Aurtan, azaroaren 16tik 24ra bitartean egin ditu Jaurlaritzak Bikain ziurtagiriaren kanpo ebaluazioak.

Orotara, jarduera ekonomiko desberdinetako 52 erakundek jaso dute ziurtagiria: 19 entitatek urrezko ziurtagiria, 22k tartekoa den zilarrezko ziurtagiria eta beste 11k oinarritzkoa.

Aurreko astean izan zen Ana Santamaria zuzendaria ziurtagiriaren banaketa ekitaldian, Donostiako Kursaal jauregian. Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin batera, bertan izan ziren enpresa, politika eta gainerako gizarte sektoreetako hainbat ordezkari ere.



Maria Luisa Zabala eta Ana Santamaria sari banaketa ekitaldian. ATARIA



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Giza eskubideak, bakea eta irtenbidea eskatuko dituzte Aiztondon

Abenduaren 31n Villabonako Errebote plazatik aterako da 19:00etan manifestazioa eta Zizurkilgo Joxe Arregi plazan amaituko da Aiztondoko sei udalek deituta

Jon Miranda Zizurkil

«Herri honetan behin betiko konponbidea eta bakea eskuratzea ez da posible izango guztien eskubideak errespetatu arte». Hori uste dute Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalek eta horregatik, «gainerakoenak bezala» euskal presoek eskubideak «errespetatuak» izan daitezela eskatzen dute, «euren Euskal Herriaraztekit hasita».

Aiztondoko udalek eskaera hori berretsi eta herritarrei urte zahar egunean egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatu diete, «giza eskubideak, konponbidea eta bakea» aldarrikatzeko. Udal hauen esanetan, «urteko azken eta urte berriko lehen egunak, senide eta lagunekin egoteko, Olentzerori ongi etorria egiteko, aspaldi ikusi gabeko pertsonak berriz ere ikusteko, elkar besarkatzeko, herri giroaz gozatzeko, otordu goxoak egiteko... aproposak dira». Baina era berean uste dute egun hauek baliatu behar direla, «guztien es-



Aiztondoko udal ordezkariak egin zuten atzo manifestaziorako deia. JON MIRANDA

kubideak errespetatu daitezen eskatzeko, ehunka eta milaka kilometrorra dauden presoek etxetik gertu behar dutela argi esateko».

Aurtan Villabonatik Zizurkilera bidea egingo duen manifestazioarekin hiru eskaera egingo dituzte elkartzeko diren herritarrek. Bat: dispersioa amaitzea eta euskal presoak Euskal Herriaraztea, «beharrezkoa baita presoek eta batez ere beren familia eta eta lagunei bidegabeko zigor

erantsia ezartzen dien sakabana-keta politikarekin behin betiko amaitzea». Bi: gaixotasun larri edota sendaezinak dituzten presoek kaleratzea, «espexitik irten eta etxetik hurbilen dagoen erietxean egoteko eskubide osoa baitute, espainiar legedian bertan jasota dagoen bezala». Eta hiru: 70 urtetik gora dituzten presoak kaleratzea.

Eskakizun horiekin bat egiteko eskaera luzatu dute Aiztondo bailarako udal hautetsiek.



URTE AMAIERAKO FESTA

2014an sortu zen Afrikar Batasuna elkarteak urtea agurtzeko festa egin zuen atzo Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. Urte osoan zehar egindako ekimenei errepasoa emateko baliatu zuten zita eta besteak beste, Aiztondoko denbora bankuarekin eta Zizurkilgo Udalarekin egindako lankidetzaz azpimarratu zuten. Afrikako ipuinak, dantzak eta musika izan ziren urte bukaerako festan eta bide batez, janari tradizionalak dastatzeko aukera ere izan zen. JON MIRANDA

Ñañarri rallysprinta, Aralarren

Eniriotik Igaratza artean egingo duten ibilgailuentzako bidea probestuko dute rallya egiteko

Erredakzioa

Irurako ikastolak Ñañarri rallysprinta antolatzeari uko egin ostean kolokan zegoen lasterketa honen jarraipena, baina azkenean Enirio-Aralar Mankomunitateak hartu du ardura. Mankomunitateak ohar batean azaldu duenez, datorren osoko bilkuran sinatuko dute akordioa rallyaren arduradunekin. Eniriotik Igaratza arteko oinezkoen bidea ibilgailuentzat egokitzea adostu zu-

ten azken bilkuran eta bide horretan egingo dute, hain justu, rallya.

Pistaren lanek hainbat fase izango dituzte, lau urtetarako proiektua da, baina lehen fasea datozen hilabeteetan gauzatuko dute, lasterketa egiteko aukera emanaz. Lasterketa, hortaz, datorren urtean egingo dute eta data aurrerago zehaztuko dutela azaldu du mankomunitateak.

Rallyak ikusleak galdu ditu azken urteetan eta erabaki honekin lasterketari beste bultzada bat eman nahi diotela esan dute. «Aralarrek eskaintzen dituen paraje ederrek ere ikusleak erakarriko dituelakoan gaude», esan dute oharrean.



URTEA AMAITU AURRETIK

Urtea amaitzean den honetan hainbat sari banatu ohi dituzte udalek. Horietako bi dira Leaburu-Txarama eta Altzo. Leaburun udalak, urtero, saskia zozkatzen du eta aurretik Tomas Arrospidek eraman du etxera. Altzon Segoretxe etxearen 14 zenbakia izan da sariduna eta Pilar Unsainek jaso du saskia Joseba Elduairen alkatearen eskutik. ATARIA



Belauntza, biztanlerian galera gehien izan duten herrien artean

Gaindegia Euskal Herriko geografia demografikoaren bilakaera eta joerak bildu ditu eta 2008-2014 urteen artean eskualdeko herriak %18,5eko galera izan duela esan du

Erredakzioa Belauntza

Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak Euskal Herriko aldagai demografikoen bilakaera ezagutzera eman eta horiek geografiarekin duten hartu-emanaz aztertzea helburu duen txostena argitaratu berri du. Udalbiltza- ren enkarguz egin du lana. Azterketak hainbat datu esangaratsu ekarri ditu argitara; badirela hainbat eskualde eta udalerri bizitasun demografiko egokia mantentzeko zailtasunak dituztenak, esaterako. Tolosaldea ez dago horien artean, baina eskualdeko herri batek, Belauntzak, aipamen berezia merezi du, izan ere, 2008 eta 2014 urteen artean biztanleriaren bilakaerari galera handieneko 15 udale-



Belauntzako biztanleria jaitsi egin da nabarmen, azken urteetan. M. UGARTEMENDIA

rrien artean, hamabigarrena da. Aipatu epealdian %18,5eko galera izan zuen. Belauntzako biztanleriak 1999tik galera izan du, 2005-2008 urteen artean izan ezik, orduan %10,4ko hazkundea izan zuen. Galera txikiena 2002-2005 epealdian izan zuen,

%1,7koa. Biztanleria galdu duten eskualdeak, orokorrean, landa eremukoak dira; «udalerri txiki eta landa inguruneak dira gehienak eta jardura ekonomiko urrikoak eta oinarritzeko zerbitzuekiko urrun daudenak», dio Gaindegia azterketak.

Gazteen etxebizitzetarako itxarote zerrenda osatu nahi dute

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako Udalak abenduaren 23an eginiko gobernu batzordean Euskal Herria kaleko 18-2 zenbakietan dauden gazteentzako alokairuzko etxebizitzetarako itxarote zerrenda egitea adostu zuen. Izena eman nahi dutenek urtarilaren 18ko 13:00ak baino

lehen egin beharko dute eta zozketa urtarilaren 20an egingo dute. Ordua udalaren webgunean jakinaraziko dute.

Izena eman nahi dutenek 18 eta 35 urte artekoak izan behar dute; Ibarran urtebeteko antzinatea errolatzea izen behar dute edota hiru urte oso azken bost urteetan; ez dute etxebi-

zitarik jabetzan izan behar azken bi urteetan; eta urteko diru sarrerak 3.000 eta 39.000 euro bitartekoak izan behar dituzte.

Argibide gehiagorako edota eskaera orriak jasotzeko 943 67 04 15 telefono zenbakira deitu behar da, www.ibarra.eus webgunera jo edo gizarte@ibarra.eus helbidera idatzi.

zozketak

Atarikideentzat sorta dugu

Rafa Gorrotxategi
Teila mixtoak
eta ron eta mahaspasadun trufa beltzezko turroia

Atarikideentzat 3 sarrera pare ditugu

PILOTA JAIALDIA

aspepelota.com

Urtarrilak 2, astelehena
16:30ean, Tolosako Beotibarren

Binaka
Dario - Erostarbe
Elordi - Irusta

EPELen Eskuz Binakako Txapelketa Finalaurrean
Olaizola II - Untoria
Artola - Albisu

Binaka
Retegi BI - Martinez
Errandonea - Tolosa

Zozketetan parte hartzeko ASTEAZKENA 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Itzea Urkizu Arsuaga

Afganistanen gizonezko baino emakume gehiagok egiten du beren buruaz beste; munduan ez da, horrelakorik, beste inon gertatzen. Baiez-tapen gordin bat izan liteke, baina, tamalez, Afganistango emakumeen bizitza gordinkeriak eraikitzen du, jaiotzen diren uneaz geroztik. Batzuek, altzairuz estaltzen dute nahigabea pilatu dien azala; beste askok, ordea, motxila emakumeen patu beltzez betetzen jarraitzen dute.

Talibanak agintean egon zirenean, oinarrizko zenbait eskubide ukatu zizkieten emakume afganistandarrei eta, besteak beste, etxetik kanpo lan egitea, ikastea edo medikuen laguntza jasotzea herritarren erdiaren luxu bilakatu ziren. Neurri inposatzaileak kontinenteak zeharkatu zituen, eta Mendebaldeak asaldatu egin zen albistearekin. Egiazki, ordea, anekdota hutsa izan zitekeen, Afganistango emakumeak drama eternal batean bizi baitira egunero-egunero.

Hala uste dute, behintzat, Gervasio Sanchez eta Monica Bernabek. *Afganistan. Emakumeak* erakusketa osatu dute 2009tik 2014ra bitarte ateratako argazkiekin, eta Tolosako Aranburu jauregian da ikusgai.

Ezkongaiak, politikariak, futbolariak, droga menpekotasuna dutenak nahiz boxeolariak ertratatu dituzte urteotan guztio-tan, besteak beste, erakusteko «emakumeen aurkako indarkeria familian bertan hasten dela Afganistanen, eta endemikoa dela; ez du zerikusirik talibanak egotearekin edo ez egotearekin». Bide horretan, gainera, nazioarteko komunitatearen isiltasuna salatzeke ere baliatu nahi izan dute argazki erakusketa.

EZKONTZA, TRANSAKZIO BAT

Bi familiaren arteko hitzarmena izan ohi da afganistandar ezkontza, eta estatus soziala, etnia eta tribua oso kontuan hartzen dituzte akordioa onartzerako. Izan ere, gizonak emakumearen familiari ordaindu egiten dio ezkontzearen truke: emakumea erosten du.

Afganistango funtzionarioek hilean –bataz beste– 160 euro irabazten duten arren, ordainketa horiek 5.000 eurora irits daitezke zenbait kasutan. Eta, noski, zerbait ordaintzeak zerbaiten jabe izatea dakar; emakumea gi-



Fauziak 13 urte ditu eta boxeolaria da; talibanen erregimena erori zenean emakume asko hasi ziren. SANCHEZ- BERNABE

Afganistango emakumeek jasaten duten zapalkuntza sistematikoa iruditan izoztu dute Gervasio Sanchezek eta Monica Bernabek; Aranburu jauregian ikusgai da erakusketa.

Altzairuzkoak, azal eta bihotz

zonaren jabetzara pasatzen da ezkontutakoan.

Antza, ezkontza termometro sozial bat da Afganistanen, familia baten estatus soziala horrek neurtzen baitu: beren semeen ezkontzetan izandako gastuak. Semeenean, bai, gizonezkoen familiek ordaintzen baitute guztiguztia.

SUAREN DESOHOREA

Familian jasotako tratu txarrekin bultzatuta, edo behartutako ezkontza baten ondorioz, 14 eta 21 urte bitarteko emakume gazteak izan ohi dira beren buruaz beste egiten duten gehienak.

Erakusketako azalpenetan irakur daitekeenez, Afganistango Herat probintzian bada norbere bizitzarekin behin betiko amaitzeko teknika orokortu bat ere: bontzo eran norbere burua erretzearena. Emakume gazteek erregaia baliatzen dute horretarako eta, hain zuzen, hori izaten da medikuei frogarik garbiena eskaintzen dien aztarna.

Izan ere, familientzako sekulako desohorea da emakumeek beren buruaz beste egitea eta, beraz, sukaldean erre direla esaten dute publikoki.

UKABILA BELDURRARI

Gizarte afganistandarraren muturreko izaera kontserbadoreari aurre egiteko «belaunaldiak eta belaunaldiak» beharko direla diote Gervasio Sanchez eta Monica Bernabe argazkilariek, baina, zorionez, gero eta gehiago dira, horri aurre egin, eta beren bizitzan erabakiak hartzen ari diren emakumeak.

Shakila Ibrahim Khilen kasua da bat. 31 urte ditu, eta Afganistanen ikusle gehien dituen telebista kateko aurpegirik ezagunetakoa da. 17 urte zituela, aitzak talibanen gobernuko goi-kargu batekin ezkontzera behartu zuen, eta bigarren haurraz haurdun zegoela alargundu zen. Talibanen erregimenaren erortzearekin batera, aitzak kazetaritza ikasteko baimena eman zion.

Shamsia Hassani ere bere pasioak mugitzen du. Afganistango grafitigile bakarretakoa da, eta Kabul en egindako tailer batek piztu zion horretarako grina. Teknika ikasi zuen, eta horretan dihardu 28 urteko emakumeak.

Humanitateen mundutik harago ere, bada Afganistan berri bat marrazten ari den emakumerik. Talibanen garaian aginduak betetzen ez zituztenei eskuak moztzen zizkieten lekuan –edo exekutatzeko zituzten lekuan–, Kabulgo kirol estadioan, futbole-an aritzen dira, orain, emakume-

ak. Goi eta erdi-mailako familie-
tako alabak dira, eta aurreikus-
pen handiak dituzte beren etor-
kizunei begira. Sarak, adibidez,
14 urte ditu eta eskolan ari da
oraindik; han ezagutu zuen fut-
bola. Nadia, berriz, 21 urterekin,
unibertsitatean ari da Nazioarte-
ko Harremanak ikasten.

Baloia-aren atzetik bezalaxe, bo-
xeoan ere ez zen, sekula, emaku-
me afganistandarrik aritzen. Ez
zen aritzen, talibanen erregime-

**Herat probintzian
emakumeek bontzo
erara egiten dute beren
buruaz beste, beren
gorputza errez**

**Emakume batekin
ezkondu eta haren
jabe izateko, gizonak
irits daitezke 5.000
euro ordaintzera**

**2012. urtea urrezko
urtea izan zen
Afganistango
emakumeen
boxeoarentzat**

na erori arte, orduantxe hasi bai-
tziren beren autodefentsa sen-
dotuko zuen kirola bertatik ber-
tara ezagutzen. Afganistango
Boxeo Federazioan emakumeen
saila sortzera ere iritsi ziren, gai-
nera, 2012. urtea urrezko garaia
izan baitzen emakumeen boxeo-
an: 30 inguru aritu ziren. Fauzia
da boxeolari horietako bat; 13
urte ditu, eta argi dauka ez duela
ezkondu nahi, ikasten jarraitu
nahi duelako. Shabnamek, be-
rriz, 19 urte ditu, eta afizioa ofizio
ere bilakatu nahi du, izan ere, ki-
rol hezkuntza ikasten ari da.

Historia horiek eta beste hain-
bat izoztu dituzte, Sanchezek eta
Bernabek, beren objektiboekin.
Bartzelonako Udalak finantzatu-
tako egitasmoa Euskal Fondo-
aren laguntza jasotzen ari da, gai-
nera, eta, Tolosan, urtarilaren
7ra bitarte izango da erakusketa
bisitatzeko aukera.




Ezkerrean, ezkontza afganistandar bateko irudia; eskuinean, bere buruaz beste egiten saiatu den emakumea, medikuarenean. SANCHEZ-BERNABE



Sara eta Nadia (ezkerrean) futbolariak dira, erdilaria bata eta atezaina bestea; eskuinean, erakusketa hartu duen aretoetako bat. SANCHEZ-BERNABE / I. URKIZU



Eskuinekoa Shamsia Hassani grafitigilea da. Eskuinean, 20 urteko Hangama; dibortziatu egin nahi du, baina senarrak ordaindutako 390.000 afganiak eskatzen dizkio. S-B



Aroztegieta, 9
Tolosa

Biteri, 11
Erreterria

Tel.: 665 708 163

tolosaldeko
KIROL gida
2016-2017

zatoz jasotzera
atariako egotzara:
San Esteban 20 • Tolosa

Espaloiarene zoladura berritzeko lanak, abian

Beltzaren plaza inguratzen duen espaloian hasi dituzte lanak eta otsaila bitartean, biribilgunetik plazarako bidean, San Bartolome kaleko sarreran ere egingo dituzte obrak

Erredakzioa Amezketak

Amezketako San Bartolome kaleko 20 eta 27 zenbaki arteko eta Beltzaren plaza inguratzen duen espaloiarene zoladura berritzeko lanak hasi dituzte. Udalak lan hauen esleipena urrian egin zuen, 214.808,66 euroko aurrekontua daukate eta Apezetxea Anaiak SL enpresak eramango ditu aurrera.

Urbanizatzeko lanak abenduaren 15ean hasi ziren eta 2 hilabete zehar luzatuko dira, hain zuzen otsailaren amaiera arte. Ezinbestean lanak zatika hasi dira egiten, herritarrei ahal den eragozpenik txikienak sortzeko. Lanen lehen zatian Beltzaren plaza inguratzen duen espaloiarene zoladura berrituko dute, 3 edo 4 bat astez, eta jarduera honen trafikoa eragina izango du, Larraitz bidearen hasieran txandakako pasabidea emanez ibilgailuei.

San Bartolome kaleko biribilgunetik hasi eta ia Abotzenea eraikin berrira arte doan espaloia oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko egokitzea da lan hauen helburua. Askok irristatzen da gaur egun dagoen harrizko zoladura, eta hori ordezkatu eta espaloiarene zabalera murrizten duten zuhaitzak kenduko dira, oinezkoen igarobidea ahalik eta modu erosoenen eman dadin. Jarduera honen barnean sartzen dira, baita ere, jolastoki berriaren harrizko eskailera za-



Larraitz bidean hasi dituzte espaloia berritzeko lanak. JON MIRANDA

harra kentzeko eta belar eremu txikia zabaltzeko lanak.

Espaloiarene eremu honetan lanak aprobetxatuko dira, baita ere, jolastoki parean dagoen argindarraren zutabe eta kablea, airetik Beartzana jatetxearen ondora doana kentzeko eta lur azpitik pasatzeko. Horrela segurtasuna areagotzea lortuko da.


EGUBERRIETAKO ETENA

Urte berriaren lehen astean obrak etenda egongo dira eta urtarrilaren 9tik aurrera lanei berriro eutsita espaloia bukatuko da eta San Bartolome kaleko 20 eta 27 zenbakien arteko eremuaren urbanizatzeko berriari ekingo zaio. Lanak irauten duten bitartean ibilgailuentzako trafikoa 5 astez etengo da eta oinezkoak bakarrik pasa ahal izango dira kale honetatik. Urtarrilean Beltzaren plaza azpiko garajeko era-

biltzaileekin sarrera irteerak nola kudeatuko diren koordinatu eta autobusa Auzoetxe ondoko geltokian bakarrik hartu ahal izango da.

Lan hauen helburua oinezkoen irisgarritasuna bermatzea da, araudiaren eskakizunekin bat eginez eta bertako zoladura berrituz. Horretarako espaloiak egokituko dira eta kale erdiko zoruaren tratamendua kultur etxetik kale bukaeraraino doan berdina izango da, hau da, brea inpresoa jarriko da. Jarduera honetan ere biribilgunea eta papertegiaren sarrera bitartean dauden argiteri publikoaren puntuak ordezkatu eta gehituko dira, zehazki 15 farola izatetik 21 farola izatera pasako da.

Amezketako Udaleko ardura-dunek deia egiten diete herritarrei pazientzia izan dezaten lan hauek irauten duten bitartean.



Alkizako Koldobika Jauregi eskultoreak hartzen du parte erakusketan. A. U.

Zazpi euskal eskultoreren artean, Jauregi

Donostiako Okendo kultur etxean 28 obra jarri dira ikusgai, artista bakoitzeko launa eskultura

Erredakzioa Alkiza

Koldobika Jauregi alkizarraren lanekin batera, Rikardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Jose Zugasti, Iñaki Ruiz de Eguino, Iñigo Arregi eta Iñaki Olazabal eskultoreen ikusi ahal dira Donostian. 2014ko udazkenean artista hauek osatutako taldeak bere lanak erakutsi zituzten Arantzazun, *Amets-kabi* izenarekin. Euskal artea oroitzen duen leku enblematikoa batean aurkeztu zituzten obra eskultorikoak. Xabier Saenz de Gorbea zena izan zen erakusketako komisarioa eta ezusteko arrakasta izan zuen.

Euskal eskulturgintzaren iraganaren eta orainaren arteko sorkuntza-horizonteak ikertzeko aukera ematen duen erakusketa ikusgai izango da, beraz, urtarrilaren 28ra arte Donostian.

Joan den abenduaren 16an inauguratu zuten erakusketa.

Okendo kultur etxean zabalik izaten da astelehenetik ostirale-ra goizez 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era. Larunbatetan berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Igande eta jai egunetan itxita egoten da eta Eguberrietako jai bezperetan (abenduak 31 eta urtarrilak 5) goizez bakarrik irekiko da 10:00etatik 14:00etara. San Sebastian bezperan ere, ordutegi berezia izango du erakusketak, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Urtarrilaren 13an bestalde, bisita gidatua egingo dute, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia Kulturak antolatuta dute 7 euskal eskultore erakusketa.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

«Bigarren itzuliko lehen bi partidak joango zaizkidala uste dut»

IÑAKI ARTOLA PILOTARIA

Binakako txapelketan bigarren doaz Artola eta Albisu, nahiz eta alegiarrek azken bi partidak ez dituen jokatu, lesioa tarteko.

Asier Imaz Alegia

Abenduaren 13an, Urretxun, sorbalдан min hartu zuen Iñaki Artolak (Alegia, 1994). Geroztik, txapelketa harmailetatik jarraitu du alegiarrek, eta otsailaren bigarren astera bitarte, horrela segi beharko du. Oraindik, besoa zintzilikarioarekin dauka.

Zer moduz dago besoa?

Ondo. Egunetik egunera hobeto. Gainera, ondo doala esaten dute. Oraindik lotuta darabilkit. Kasik ezer egiterik ez daukat, baina, geldi dagoenean behintzat ez dut min handirik izaten, eta hori ez da gutxi.

Zehazki non hartu zenuen min?

Ezkerreko sorbalдан, klabikula edo lepauztaia eta humeroa elkartzen diren tokian. Horiek biak elkartzen dituen lotailuak dauzkat minduta.

Oraindik, beraz, ez duzu mugimendurik egiten.

Mugimendu pasiboak bakarrik. Medikuek berak mugitzen dit besoa, eta ondo doala esaten du. Bestela, bizikleta estatikoa eta etxean eskuak hormaren aurka suabe-suabe lantzen ditut pixka bat. Aurreko lesioa ukondoan zen, eta gutxienez banuen korri egiterik. Fisikoa egiten jarraitu nuen orduan. Uste dut horregatik itzuli nintzela nahiko ondo. Oraingoa desberdina da, geldigeldi egon beharra daukadalako.

Min hartu zenuen une hura.

Urretxun partida jokatzen ari ginelan izan zen. 11-10 gindoazen. Elezkanok txokora bota zuen,

eta ni pilota altxatzera joan nintzen. Askotan bezala sorbaldarekin pareta jo nuen, baina bestetan baina indartsuago jo nuen: ero-ero joan nintzen. Kolpe dezentekoa hartu nuen, eta lesioa hortik etorri da. Paretaren kontra hartu nuen kolpetik.

Ezer hautsi ez zenean.

Kolpearekin lepauztaia bere lekutik mugitu zen, baina zortea izan nuen, eta gero bere tokira itzuli zen. Baina desplazamendu horretan, bere inguru guztia behartu zuen. Azkenean, bigarren graduako bihurritu bat da. Lau gradu izaten direla uste dut, eta hirugarrengoa izango balitz, ebakuntza egin beharra izango nuen.

Bere txarrean, gustura egoteko moduan.

Momentuan genituen pronostikoak kontuan hartuta, azkenean albiste onak jaso ditugu eta nahiko gustura nago. Mina ere momentuan nabaritu nuen. Klabikula edo ligamendu haustura izango zela uste genuen. Baina lepauztaia ondo dago, eta lotailuak ere ez daude erabat etenda. Horrek esan nahi du ebakuntzarik gabe jarriko dela, eta hori, bere txarrean ondo dago.

Partida bertan behera uzteko adina min izan zenuen.

Beste aukerarik ez zegoen. Besoa zentimetro bat ere ez nuela mugitzen geratu nintzen. Kolpea hartu bezala konturatu nintzen ezingo nuela segitu: krakateko bat antzeman nuen.

6-8 astezko atsedena esan zuten medikuek hasieran. Biga-

rren astean zaude. Pronostikoek bere horretan jarraitzen al dute?

Bai, zenbaki horiekin jarraitzen dute. Gainera, kurioa da: aurreko lesioarekin Mikel Sanchez medikuak bete-betean asmatu zuen. Hiru hilabetera ondo samar jokatzeke moduan jarriko nintzela esan zuen, eta baita asmatu ere. Orain ere berarekin nago, eta bere pronostikoa hori dela kontuan hartuta, 6-8 aste beharko ditudalakoan nago.

Itzulera, urtarrila bukaera otsaila hasieran.

Urtarrila osoa joango dela uste dut.

Otsaileko lehen partida, Altuna III-Barriolaren aurka daukazue.

Lehen itzuliko partidaren aurretik, pilota aukeraketan, Abel Barriolarekin hitz egiten aritu nintzen. Txikitatik beti izan naiz Barriola zalea, eta gure artean hizketan, elkarren aurka parti-

darik jokatu gabe ez genuela geratu behar esaten zidan. Orduan eskuetako arazoekin zegoen, eta gutxienez, bigarren itzuliko partidari jokatuko genuela zioen. Eta orain zer, eta begira nola nagoen.

Bigarren itzuliko bigarren partida da hori. Zaila izango da horegotea, ezta?

Bai. Egia esan, medikuarekin hitz egin eta gero, bigarren itzuliko lehen bi partidak utzi beharko genituela esaten zuen. Gero, oraindik bost geldituko lirateke.

Lasai. Nahiz eta orain azken postuan egon, ziur Altuna III-Barriola zuekin batera sailkatuko direla. Orduan izango duzu leitzarraren aurka jokatzeke aukera.

[Barreak] Jakin behar zein kontu izango den orduan. Victor ondo ari da jokatzen, eta berarekin zer gertuko den ere ikusi beharko litzateke.

Kontua hori da. Zu geldirik

egon arren, txapelketa ez dela gelditu. Zein sentsazioarekin ari zara jarraitzen?

Pena ematen dizu. Txapelketa bat daukazunean, nire kasuan gainera aurrekoa jokatzerik ez nuen izan, mimoz prestatzen duzu. Entrenamenduak ere datorrenari begira egiten dituzu. Eta gero, jokatu ez ahal izateak pena ematen dizu, gehienbat. Berriro, beste aukera bat galtzen ari zarenaren sentsazioa da. Baina ez dago ezer egiterik, hau horrela delako.

Agian burua ari da lan gehien egiten orain.

Ez, ondo nago. Alferrik da gauza hauei bueltak ematea. Gainera, beti eduki dut garbi lehenago edo beranduago gertatu egiten dela. Kiroletik bizi nahi baldin baduzu, badakizu hemendik pasatuko zarela. Bi lesio jarraian izan dira, eta horrek sortzen dizu zerbait, baina alde horretatik ondo nago.



MIKEL IRAOLA



Eskualdeko zerbitzuak

www.ataria.eus

Topatu behar duzuna

autoa? animaliak? eskola? altzariak? pentsua? zapatak? ileapaindegia? tailerra? optika? jatetxea? albaitaria? igeltseroa? opariak? inprenta? masajista?...



ASTEAZKENA, 2016KO ABENDUAK 28
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Jexux Murua
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



XV. Ipuin lehiaketako sariak banatuta

XV. Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketara 338 lan aurkeztu dira aurten, eta maila bakoitzeko irabazleek sariak jaso dituzte



Pasa den astean banatu zituzten sariak, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean. JON MIRANDA

Jon Miranda Zizurkil

338 lan aurkeztu dira XV. Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketara. Zizurkilgo Udalak maila handiko lanak izan direla azpimarratu du, eta eskerrak eman dizkie parte hartzaileei, beren lagun eta familiei eta baita ikastetxei ere agertutako konpromisoagatik.

HELDUEN FALTA

17 urtetik gorakoen sailean, ipuin bakarra aurkeztu da eta epaimahaiak adierazi du: «Datorren urterako 17 urtetik gorakoak animatu nahi ditugu lehiaketan parte hartzera».

SARIDUNAK

A maila (6-8 urtekoena)

- 1. saria.** Unax Mendia, 8 urte. *Nire txolarrea* ipuinarekin.
- 2. Saria.** Markel Telletxea, 8 urte. *Belarjale bihurtu zen lehoialan* arekin.

B maila (9-11 urtekoena)

- 1. saria.** Samara Rodriguez, 9 urte. *Urrezko soineko* alanarekin.
- 2. Saria.** Asier Oiarzabal, 10 urte. *Ixkio* ipuinarekin.

C maila (12-13 urtekoena)

- 1. saria.** Malen Gurrutxaga, 13 urte. *Promesak* promesa ipuinarekin.
- 2. Saria.** Alexander San Sebastian, 13 urte. *12 kanpalkada* ipuinarekin.

D maila (14-16 urtekoena)

- 1. saria.** Ainhoa Manterola, 16 urte. *Hari lauso bati helduta* ipuinarekin.
- 2. Saria.** Olaia Azurmendi, 15 urte. Oroitzapenetan ipuinarekin.

E maila (17 urtetik gorakoena)

- 1. saria.** Xabier San Sebastian, 20 urte. *Suhiltzaileen kamioian* ipuinarekin.

Oharra: E mailan lan bakarra aurkeztu da, eta saritzeko moduko lana izan da epaimahaiarentzat.

AGENDA

Deialdiak

Aduna. Sukaldaritza sortzailea: Plater gaziak, plater gozoak, Gabonetako jakiak, produktu osasuntsuak.
Alegia. TGabonetako egitarauaren barruan, **10:00-11:30.** 6-8 urte bitarteko haurrentzat ekintzak gaztelekuan. **11:30-13:00.** 9-11 urte bitartekoentzat ekintzak gaztelekuan. **17:00.** Zinea haurrentzat.
Ibarra. *Andrina Basandrina* ipuin kontaketa izango da, 17:00etan, kultur etxean, 4-9 urte artekoentzat.
Orendain. *Halabazan* ipuin kontalaria, kultur etxean, 17:00etan.
Tolosa. Doako puzgarriak eta haur parkea, Zerkausan, 2-8 urte bitarteko haurrentzat. **09:30-12:30.** *Harriak mugituz* tailerra Topic zentroan, 8 urtetik gorako haurrentzat. **10:00-13:00.** Make it tailerra BOX.An, 10-16 urte bitarteko gazte-txoentzat. **17:00-20:00.** Topagunean Maker teknologien tailerra, 12-16 urte bitarteko gaztetxoekin. **17:00.** Ene Kantak Astonauta, Leidor aretoan. **18:30.** *Itsasminezt* xotxongilo taldea Topic zentroan. **20:00.** Tolosa&Co-ren eskutik, Tributo a Fito & Fitipaldisen kontzertua izango da, Trianguloa plazan. **22:30.** Bonberenean 19. urteurrenaren barruan, Atila y los Unos eta Dj Bull izango dira, Bonberenean. Sarrera doan.
Zizurkil. Ipuina eta bertsoa, 17:30ean Plazida Otaño liburutegian. San Millan, Otaño eta Pello Errotako umeak ipuinak bertsoan abestuko dituzte eta bapatekoan Amaia Agirre, Oihana Iguaran, Haritz Mujika eta Unai Mendizabal ariko dira.

ATARIA IRRATIA

Egun guztian zehar.

Euskal musika, eta urteko elkarrizketarik garrantzitsuenak.

+ FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Olarreaga, I. Korreo klarea, 2. Telefonoa: 943 67 0128.

Gauekoa. Morant, R.

Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Beste egun batez eguraldi egonkor eta eguzkitsua. Zeruia urdin mantenduko da egun osoz, nahiz tarteka hodeiren bat edo beste azaldu. Hego, hego-ekialdeko haizearekin berriz ere tenperatura goxoa. 14-16 gradu maximekin.

Bihar. Eguraldi egonkor eta eguzkitsua jarraipena izango du, baina ñabardura batekin. Haizeak arratsaldean ipar-ekialdera egin eta gau aldera dezentet hozoituko du. Egunean zehar zerua ia oskarbi mantenduko da eta tenperatura goxoak izango dira: 14-16°. Gauean dezentet hozoituko eta minimak 3-5 gradu artean geratuko dira.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



RAFA GORROTXATEGIEN ARTISAU TURROIAK

Rafa Gorrotxategi

Tolosan
salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Rafa Gorrotxategi
Denda:
Solana Kalea, 3

943 89 03 06 / www.rafagorrotxategi.eus